

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROITIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
2018. URTEA



Kontratuen inguruko Errekurtsoen
Administrazio Organoa
Órgano Administrativo
de Recursos Contractuales

KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROTIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
2018. URTEA



**Kontratuen inguruko Errekurtsoen
Administrazio Organoa**
Órgano Administrativo
de Recursos Contractuales

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

- Argitaraldia:** 1.a, 2019ko azaroa
- Ale-kopurua:** 40 ale
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ogasun eta Ekonomia Saila
- Internet:** www.euskadi.eus
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
- Itzulpena:** IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)
- Diseinua:** EkipoPO
- Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua
C/ Donostia-San Sebastián 1, Vitoria-Gasteiz 01010
- Lege gordailua:** VI 726-2019

AURKIBIDEA

I. MEMORIAREN XEDEA	7
II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2018. URTEAN	9
II.1. OSAERA.....	9
II.2. AURREKONTUA	10
III. JARDUERA OSAGARRIA 2018. URTEAN.....	11
III.1. KEAOREN WEBGUNEA.....	11
III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA	11
III.3. KOORDINAZIO-JARDUERA.....	12
III.4. DIBULGAZIO-JARDUERA.....	12
IV. KEAO-REN EBAZPEN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK 2018. URTEAN	13
IV.1. ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA.....	13
IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA	14
IV.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA	15
IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZA BAKOITZEKO	16
IV.5. 2018AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA.....	17
IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA.....	17
IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA	18
IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA	18
V. ZPKL-REN 57.4. ARTIKULUKO OBLIGAZIOA BETE EZ DUTEN BOTERE ESLEITZAILEAK	21



I. MEMORIAREN XEDEA

Lehenago argitaratutako beste memorieta adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (aurrerantzean, KEAO) Euskal Autonomia Erkidegoko 2011rako aurrekontu orokorren Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez sortu zen (abenduaren 23ko 5/2010 Legea) administrazio-organo gisa, haren esparru objektibo eta subjektiboan bildutako kontratu publikoetan hartutako erabaki jakin batzuen legezketasuna kontrolatzeko. Hori dela eta, tankera horretako organoek euren eskumen-esparruan izaten dituzten ezaugarriak ditu, hala nola bere eskumenak erabiltzeko independentzia funtzionala (lotura hierarkikorik eza edota inoren aginduak bete behar ez izatea), titularraren espezializazioa eta agintaldiak irauten duen bitartean titularra aldatu ezina.

Botere esleiztaileei eta operatzaile ekonomikoei denbora-tarte jakin batean izandako jarduerari buruzko informazio estatistikoa emateko xedez prestatu eta argitaratu da KEAOren urteko memoria (kasu honetan, 2018. urteari dagokiona emateko), eta, horrez gainera, denbora-tarte horretan agindutako funtzioa betetzean bideratu diren giza baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzko informazioa ematen du.


«Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Doktrina» argitaratzen da memoriarekin batera; Organoa abiarazi zenez geroztik (2011) emandako erabakien laburpenak biltzen dira sistematikoki dokumentu horretan. Halaber, bi zatitan banatuta dago; lehenengo zatian, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (hemendik aurrera, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren indarraldian emandako erabakirik garrantzitsuenak daude bilduta; bigarren kasuan, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora– (hemendik aurrera, SPKL) aplikatu den erabakiak daude jasota, dela errekurtsu bereziaren prozedurari dagokionez dela planteaturiko funtsezko arazoari dagokionez. Dokumentuaren osagarri gisa, zerrenda bat jasotzen da, KEAOren ebazpenen artean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian errekurritu direnak eta 2019ko martxoaren 31ra arte ezagutu direnak biltzen dituen zerrenda bat, hain zuzen.



II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2018. URTEAN

II.1. OSAERA

Hona hemen KEA Oren egituraren organigrama:



2018. urtean, lanpostuen kopurua ez da aldatu, ezta horien ezaugarriak ere. Zehazki, honako hauek osatzen dute Organoa:

- **Organoaren titularra.** Maiatzaren 31ko 103/2011 Dekretuaren bidez (ekainaren 3ko EHAAn argitaratua), José Antonio Ausín Unzurrunzaga jauna izendatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren lehen titular. Agintaldia amaituta, urriaren 31ko 242/2017 Dekretuaren bidez (EHAA, 214. zk., azaroaren 9koa), María Begoña Arroita Jauregui Jayo andrea izendatu zen Organoaren titular, eta haren ordezkari plaza huts, absentzia edo gaixotasun kasuetarako, berriz, Francisco Javier Elola del Río jauna.
- **Aholkularitza juridikoaren bi arduradun.** Bi lanpostuetako bat hutsik egon da 2017ko azaroaren 9tik bete zen arte, 2018ko uztailaren 5era arte, hain zuzen.
- **Organoaren idazkaritzaren ardura duen aholkulari juridiko bat.** Lanpostu hori hutsik egon da 2018ko uztailaren 6tik gaur egungo langilea sartu zen arte, 2018ko urriaren 4ra arte, hain zuzen.
- **Administrari bat.**



II.2. AURREKONTUA

KEAO kontratazioaren alorrean eskumena duen sailari atxikita dago, Ogasun eta Ekonomia Sailari, alegia. Jarduera garatzeko bitarteko materialak (batik bat programa informatikoaren eta webgunearen mantentze-lanetatik eratorriak) sail horretara bideratutako aurrekontuaren kontura ordainduko dira.

KEAOk langile-gastuak espresuki zehaztuta ageri dira Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuetan, 6114. aurrekontu-programaren 6. sekzioan, 09. zerbitzuan; 2018ko abenduaren 31n 288.896,47 € zen aitortu eta ordaindutako obligazioen zenbatekoa 1. aurrekontu-kapituluari dagokionez, eta 1.252,22€, berriz, 2. aurrekontu-kapituluari dagokionez (funtsean, dietei eta bidaia-gastuei buruzkoa da kapitulu hori).

2018an ez da diru-sarrerarik izan.

III. JARDUERA OSAGARRIA 2018. URTEAN

III.1. KEAOREN WEBGUNEA

KEAOk webgune bat du Euskadiko kontratazio publikoaren atarian, <<http://www.contratacion.euskadi.eus>> helbidean; haren bidez jartzen da harremanetan elektronikoki botere esleitzailleekin, errekurtsogileekin eta bestelako interesdunekin.

Webgune horretan bertan argitaratzen dira ebazpenak, bilaketak hainbat irizpideren arabera egiteko moduan; era berean, botere esleitzailleentzat eta eragile ekonomikoentzat interesgarri izan litezkeen bestelako dokumentuak ere argitaratzen dira atarian, hala nola kontratu publikoekin lotutako erabaki jakin batzuen berrikuspen-prozedura bereziei eragiten dieten arauen zerrenda, ebazpen esanguratsuenak biltzen dituen laburpen sistematikoa edota kontratu publikoei buruzko errekurtsuak ebazteko auzitegiek egindako dokumentua («Los efectos jurídicos de las directivas de contratación pública ante el vencimiento del plazo de transposición sin nueva ley de contratos» izenburua duena).

III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA

Errekurtsu berezien prozedurak, erreklamazioak eta sortzen diren deuseztasun-auziak kudeatzeko, KEAOk aplikazio informatiko bat dauka (Y96A) webgunearen barruan, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan. Honako funtzio hauek ditu:

- Botere esleitzailleak.

Botere esleitzailleek kontratazio-espeditentea helarazi behar dute; alegia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua edota Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 105.2 artikulua zehaztutako txostena, baldin eta hura kontratazio-organoaren aurrean jarritakoa balitz. Behar bezala digitalizatuta aurkeztu beharko da, konfiantzazko inguru batean dagoen aplikazio informatikoan, eta espedienteen izapideak edozer egoeratan ikusi ahal izango dira. Era berean, botere esleitzailleak alta eta baja eman diezaike KEAOn haren izenean baimendutako langileei aplikazio informatikoan, edota aldatu.

- Errekurtsogileak eta interesdunak.

Pertsona juridiko diren errekurtsogile eta interesdunek, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, KEAOrkin harreman elektronikoa izan behar dute; horretarako, elektronikoki ipini behar dute kontratazioko errekurtsu berezia, erreklamazioa edota deuseztasun-aurka, eta alegazioak formulatu behar dituzte, ekindako prozeduretan interesdun bezala pertsonatuz gero. Halaber, espedienteen izapidetze-egoera eta jakinarazpenak modu telematikoan ikusten

dira. Operadore ekonomikoa pertsona fisikoa izanez gero, nahien komunikazio-kanala aukeratu ahal izango du, dela telematikoa, dela posta bidezkoa.

- 2018. urtean, aplikazio informatikoa SPKLra egokitzeko lan egin da.

III.3. KOORDINAZIO-JARDUERA

2018ko martxoaren 8an, koordinazio-bilera bat egin zen Sevillan, estatuko eta autonomia erkidego kontratuen inguruko errekurtsoen gainerako organoekin. Kontuan izan behar da SPKLren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten dela: «Sortzen diren errekurtsio-organoei beren erabakien koherentzia errazteko eta beren doktrina bateratzeko egokienak diren koordinazio-eta lankidetzeta-formulak adostuko dituzte, ezagut ditzaten aurkezten zaizkien gaiak direla eta. Organo horiek, gainera, kontratu publikoei buruzko araudian aurreikusitako errekurtsio-mekanismoak hobeki funtzionatzeko egokitzat jotzen diren arau-doikuntzak eta gomendioak proposatu ahalko dituzte».

III.4. DIBULGAZIO-JARDUERA

KEAOren webguneko «Memoriak eta doktrina» atalean, 2011n martxan ipini zenetik izan diren ebazpen garrantzitsuenen bilduma ageri da, KEAOren webgunean dauden ebazpenak bilatzeko sailkapen-irizpideen arabera multzokatuta.

IV. KEAO-REN EBAZPEN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK 2018. URTEAN


IV.1. ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA

Orotara erregistratutako errekurtsoen kopuru osoa eta 2018an emandako ebazpenen kopurua honako hau izan da:

- Errekurtsoen kopurua, guztira:199

2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra 2017an baino 21 errekurtsu gehiago jarri ziren (178 erregistratu ziren 2017an). Horrek esan nahi du Organoaren jarduera % 10,55 hazi zela. Kontuan izanik 2016an 158 errekurtsu aurkeztu zirela guztira, KEAOn aurkeztutako errekurtsoen kopurua ehuneko 23,20 hazi da bi urteko denbora-tartean.

Honako grafiko honetan dago jasota errekurtsoen kopuruen bilakaera, jarduerari ekin zion urtetik aurrera urteka sailkatuta:




- Ebazpenen kopurua, guztira: 186

2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra bitartean emandako ebazpenak hartzen ditu barne, eta 186 ebazpen eman badira ere, 192 errekurtsori dagozkie ebazpen horiek, metaturiko errekurtsu bat edo gehiago ebazten baitituzte horietako batzuek. Horrenbestez, esan daiteke 2018ko abenduaren 31n KEAOn pendentsia –hots, 2018an aurkeztutako errekurtsoen kopuruaren eta denbora-tarte berean erabakia eman zaien errekurtsoen kopuruaren arteko aldea– 7 errekurtsokoa –alegia, % 3,5ekoa– zela.

IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA


«Sozietate publikoak» atalean, tokiko sektorekoak zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioekoak ageri dira. Bestalde, «Beste administrazio publiko batzuk» kontzeptuaren barruan, Euskal Herriko Unibertsitatea, hainbat administrazio osatutako partzuergoak eta udalerrien mankomunitateak ere jasotzen dira.

Taula honetan, botere esleitzailerako bakoitzaren kontra aurkeztutako errekurtsoen ehunekoak ageri dira:



«EAEko administrazio orokorra eta instituzionala» kontzeptuaren pean jasotako kontratuen aurkaratzearen ehunekoa nabarmen jaitsi dela ikus daiteke; horren erakusle, 2017an jarritako errekurtsu berezi guztien % 44 aurkaratzeak ziren, eta 2018an % 34 izatera igaro dira. Aurkaratutako gainerako botere esleitzailerako kontratuak aurreko urteetako antzeko mailetan mantendu dira 2017ko datuekin alderatuta.


Botere esleitzailerako arabera errekurtsuok zer bilakaera izan duten ikusteko, koadro honetan daude jasota KEA Oren zortzi urteko jarduneko datuak:




IV.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

Jarraian jasotako grafikoan errekurtsoen ehunekoa irudikatu da, kontratu motaren arabera. Aurreko urteetan bezala, zerbitzu-kontratuak jasan dituzte nabarmen errekurtsu gehien; zehazki, errekurritutako kontratuen % 72 dira. Ondoren, tarte handiarekin, hornidura-kontratuak daude (% 19). Obra-kontratuak jarraitzen du izaten gutxien aurkaratutakoa; hala, 2018an, obra kontratu baten gaineko errekurtsu berezi bakar bat baino ez zen jaso. Kontratu motaren arabera aurkeztutako errekurtsoen ehunekoa horiek 2017koen oso antzekoak dira.

Hau da ehuneko horien irudikapen grafikoa:




KEAoren zortzi urteko ibilbidean aurkaratutako kontratu motak batez ere zerbitzuenak eta hornidurenak izan dira. Gainerako kontratuak (obra-kontratuen kasuan izan ezik) ez daude hurrengo koadroan jasota, oso gutxi baitira haiekin lotuta jasotako errekurtsuak.




IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZA BAKOITZEKO

2018an errekurtsio gehien izan duten egintzak kontratu-esleipenak izan dira: errekurtsioa ipinitako egintzen % 47. Ondoren, iragarkiei, pleguei eta bestelako dokumentuei egindakoak, % 31. Izapide-ekintzen aurkarazteak % 8 hazi ziren 2017. urtearekin alderatuta. Hainbat faktore izan litezke horrek kausak, besteak beste, lizitatzailleen onarpen-akordioa aurkaraz daitekeen egintzat jo izana jurisprudentzia europarrak (2017ko apirilaren 5eko EBJAE, C-391/15, ECLI:EU:C:2017:268), baita SPKLren 44.2 b) artikulua ere.

Errekurritutako egintza




Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, KEAOk jardunean emandako zazpi urteotan, gehien aurkaratu den egintza esleipen-erabakia izan da, nahiz eta urteek aurrera egin ahala kontratuaren pleguen kontrako errekurtsioek ere gora egin duten.




IV.5. 2018AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA

2018. urtean emandako ebazpenen zentzia irudikatzen da hurrengo grafikoan. Ezetsitako errekurtsoen ehunekoa % 46 da, 2017koaren berdin-berdina; erabat edo partzialki baietsitako errekurtsoen ehunekoa, berriz, % 30 da (hots, apur bat igo da 2017koarekin alderatuta, zehazki, ehuneko 3) Azkenik, aipatzekoa da ez-onartzearen tasa gutxi gorabehera konstante mantendu dela, eta ehuneko 1 baino ez dela murriztu 2017koarekin alderatuta.



IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA

Honako grafiko honetan, KEAO jardunean izan den urteetan (2011tik 2018ra bitartean) aurkeztutako errekurtsoen kopuruak ageri dira, urteen eta hilabeteen arabera sailkatuta:



IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA

Prozedura izapidetu eta errekurtsuak eta erreklamazioak ebazteko batez besteko epea 52 egun naturalekoa izan da 2018an, errekurtsua aurkeztutako egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Errekurtsuak ebazteko batez besteko epea 16 egun natural luzatu da 2017koarekin konparatuta; izan ere, 2018an gaien kopurua handiagotzeaz gain, aholkularitza juridikoaren arduradunaren plazetako bat eta Organoaren idazkaritza hutsik egon dira hainbat hilabetez (ikus memoria honen II. atala).

IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA

Honako koadro hauetan, errekurtsu bereziekin, erreklamazioekin edota deuseztasun-auziekin lotuta emandako ebazpenen kontra ipinitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuen kopuru osoa ageri da (zehazki, 2018ko abenduaren 31ra bitartean jarritakoak eta 2019ko martxoaren 31ra bitartean ezagututakoak). Hona hemen esandako datara bitartean KEAOn ipinitako errekurtsu guztien gaineko ehunekoa:

2011-2018 aldia

Urtea	Admin. auzi-errekurtsuak. Guztizko kopurua	Kontratuen inguruko errekurtsuak. Guztizko kopurua	%
2011	5	68	7,35
2012	3	125	2,40
2013	10	128	7,81
2014	22	169	13,02
2015	14	168	8,33
2016	21	158	13,29
2017	13	178	7,30
2018	17	199	8,54
Guztira	105	1.193	8,80

Honako hau da KEAOk ezagututako erabaki judizialen izaera, 2019ko martxoaren 31ra bitartean, errekurso berezia jarri den urtearen arabera sailkatuta:

Zentzua	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira	Admin. Auzi-errek. barruko %	% Kontratueng. Errk. barruko (1.193)
Baietsiak	0	0	3	8	3	0	0	0	24	22,86	2,01
Neurri batean baietsiak	2	1	0	1	1	0	0	0	7	6,67	0,59
Ezetzia	2	2	3	4	3	0	7	0	26	24,76	2,18
Atzera eraginak	1	0	3	6	5	2	1	1	21	20,00	1,76
Onartu gabekoak	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0,95	0,08
Prozegura iraungita	0	0	0	1	0	0	0	1	6	5,71	0,50
Erabakirik ez	0	0	0	2	2	19	5	15	20	19,05	1,68
Guztira	5	3	10	22	14	21	13	17	105	100,00	8,80

2018ra bitartean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekursoak erabat edo zatika kontuan hartzen dituzten epaien kopuru osoa orain arte aurkeztutako errekurso bereziekin, erreklamazioekin eta deuseztasun-auziekin alderatzen bada, ikusiko dugu KEAoren erabakien % 97,40k ez dutela errekurtsorik izan, edota, izan badute ere, ez dutela kontrako epai oso edo partzialik jaso 2019ko martxoaren 31ra bitartean (berrespen-tasa). Ehuneko horrek 2018ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako errekurso berezien, erreklamazioen eta deuseztasun-auziei egiten die erreferentzia, eta ez ebazpen kopuruari (azken kopuru hori txikiagoa da, haietakoren batek errekursoak metatuta edukitzeagatik).

Urteen arabera, honako hau da ehunekoa:

• 2011. urtea	97,06 %
• 2012. urtea	99,20 %
• 2013. urtea	97,66 %
• 2014. urtea	94,68 %
• 2015. urtea	97,02 %
• 2016. urtea	93,04 %
• 2017. urtea	100,00%
• 2018. urtea	100,00%

Kontuan izan behar da 2017tik bost errekurtsu epaia jasotzeko zain daudela. Halaber, nahiz eta 2018an administrazioarekiko 17 auzi-errekurtsu ezarri diren, orain artean bi erabakiren berri izan da bakarrik: atzera-egite bat eta iraungitze bat, hain zuzen.

V. ZPKL-REN 57.4. ARTIKULUKO OBLIGAZIOA BETE EZ DUTEN BOTERE ESLEITZAILEAK

SPKLk errekurso bereziaren prozeduran sartutako nobedadeetako bat haren 57.4 artikuluan bildutakoa da; nobedade horren eraginez, kontratazio-organoak derrigorrean eman behar dio ebazpena eman duen organoari hura betearazteko harturiko jarduketan berri.

Jarraian ageri den zerrendan jasota daude 2018an aurkeztutako errekurso berezien artean SPKLren errekurso bereziaren ebazpen-prozedurari jarraikiz izapidetu direnak eta aurkezturiko pretentsioa erabat edo partzialki baiesteko ebazpena izan dutenak; halaber, SPKLren 57.4 artikuluan ezarritako obligazioa bete duten botere esleitzzaileak eta obligazio hori bete ez dutenak ere xehatzen dira. Kontuan izan behar da zerrenda horretan biltzen diren botere esleitzzaileen jarduketak KEAOk 2018ko martxoaren 31 baino lehen ezagutzen zituenak direla eta 2018an aurkezturiko azken errekursoak 2019ko lehenengo bi hilabeteetan ebatzi direla; horrek esan nahi du botere esleitzzaile batzuek ez dutela behar adina denbora izan ebazpena gauzatzeko eta egindako jarduketak jakinarazteko.

Nabarmendu beharrekoa da botere esleitzzaileen artean ebazpena betearazteko harturiko jarduketak helarazi dituzten botere esleitzzaileak ehuneko 23,91 baino ez direla, 2018an obligazio hori betearazi behar zuten botere esleitzzaileen guztizko kopuruaren barnean. Ehuneko eskas horren arrazoa ezin da izan da, aitzakia gisa, SPKL oso denbora-tarte laburrean egon dela indarrean; izan ere, KEAOk gogorarazi du, bere ebazpenen xedapenetan, derrigor betearazi behar dela obligazio hori, hiruren kasuan izan ezik (hiru kasutan, gogorarazte hori ez dago jasota).

ERREKUR-TSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPE-NAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/040	Astigarragko Udala	Astigarragako udalaren hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro sailarentzat laguntza, aholkularitza eta defentsa juridikoa	Ebazpena 062/2018	18-May-10	Baietsiak	
EB 2018/042	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Ekonomiaren garapen eta azpiegitura sailarentzako bidaia-agentzia zarbitzua kontratatzea	Ebazpena 065/2018	18-May-17	Baietsiak	
EB 2018/044	Legazpiko Udala	Legazpiko soropil, lorategi, zuhaitz eta berdeguneen mantentzea egitea	Ebazpena 067/2018	18-May-22	Baietsiak	

... /...



... /...

ERREKUR-TSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPE-NAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/049	Barakaldo Udala	Barakaldoko udalerrian garbiketa-zerbitzua eta hiri-hondakinen bilketa eta garraioa.	Ebazpena 072/2018	18-Jun-6	Baietsiak	
EB 2018/053	Goierrri-Urola Garaiko ESla	Goierrri-Urola Garaiko ESla-ko kirurgiako elastikoak eskuratzeko esparru-akordioa	Ebazpena 075/2018	18-Jun-11	Baietsiak	
EB 2018/055	Ogasun eta Ekonomia Saila	Gipuzkoako portuetan lur-azala eta ur-lamina garbitzeko eta itsasontzietatik eratorritako hondakinak batzeko zerbitzua	Ebazpena 077/2018	18-Jun-15	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/058	Donostiako kirol-patronatua	Donostiako udal kirol patronatuaren "kirol ekintzak", "UDA", "eskola igeriketa" eta "osasuna sustatzeko" kanpainetako kirol zerbitzu edo jardueren prestaziorako zerbitzuak	Ebazpena 078/2018	18-Jun-15	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/063	Barakaldo ZEla	Garbitzeko sistema eta irri-gazio bonbarako suntsikorak eskuratzeko akordio-esparrua Barrualde-Galdakao ESiko traumatologiako operazio-gelarako.	Ebazpena 088/2018	18-Jul-11	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/066	UPV/EHU	Akoplamendu induktibo bidezko 2 plasma ekipo eskuratzeko masen espektrometriako detektagailuarekin	Ebazpena 098/2018	18-Jul-30	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/073	Polymat Fundazioa	Basque Center for Macromolecular Design and Engineering, Polymat Fundaziorako suntsikorak eskuratzeko	Ebazpena 106/2018	18-Sep-11	Baietsiak	
EB 2018/078	Zumaia Udala	Zumaia udalerriko kanpoko argiteria publikoko instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektua	Ebazpena 112/2018	18-Sep-20	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/088	Gurutzeta ESla	Kirurgiako elastikoak eskuratzeko esparru-akordioa	Ebazpena 116/2018	18-Sep-21	Neurri batean baietsiak	

... /...

... /...

ERREKUR-TSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPE-NAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/093	Basquetour	Bidai agentzia zerbitzua kontratazioa Basquetour turismoaren euskal agentziarentzat- Agencia Vasca de Turismo S.A.	Ebazpena 138/2018	18-Oct-19	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/099	Segurtasun Saila	Giza identifikazio lan teknikoak ADN analisisien bitartez	Ebazpena 121/2018	18-Sep-27	Baietsiak	
EB 2018/106	Basauriko udala	Artunduagako udal futbol-zelaiko belar artifiziala aldatzea	Ebazpena 137/2018	18-Oct-18	Baietsiak	
EB 2018/108	Beasaingo Udala	Beasaingo Igartzako monumentu multzoko jauregia, errota, burdinola eta ermitaren kudeaketa eta ustiapena	Ebazpena 133/2018	18-Oct-17	Baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/110	Debagoieneko ESla	Debagoieneko ESrako elastikoak eskuratzea	Ebazpena 134/2018	18-Oct-18	Baietsiak	
EB 2018/111	Osakidetza	Elektromedikuntzako ekipamendua mantentzeko zerbitzua Osakidetzako zentruetan Gipuzkoako osasun-barrutian.	Ebazpena 152/2018	18-Nov-8	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/112	Segurtasun Saila / Ertzaintza	Helikopteroak mantentzeko laguntza	Ebazpena 143/2018	18-Oct-29	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/113	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Bizkaiko Ondarroa, Lekeitio, Mundaka eta Bermeo Portuen segurtasun eta zaintza zerbitzua	Ebazpena 104/2018	18-Sep-5	Baietsiak	
EB 2018/115	UPV/EHU	Laborategiko altzarien hornidura eta instalazioa Leioako Campuseko MARTINA CASIANO eta MARIA GOYRI eraikinetan	Ebazpena 145/2018	18-Oct-31	Baietsiak	
EB 2018/118	UPV/EHU	UPV/EHUren ikastegi eta eraikinetan sor daitezkeen premiei erantzuteko ikasgelarako altzarien hornikuntza	Ebazpena 142/2018	18-Oct-26	Baietsiak	

... /...

... /...

ERREKURTSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPENAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/120	Eako Udala	Argindarraren hornikuntzarako kontratazioa	Ebazpena 160/2018	18-Nov-21	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/123	Leioako Udala	Prozedura ireki bidezko kontratazioa, erregulazio harmonizatukoa, Leioako udalerriko hiri-garraio zerbitzurako.	Ebazpena 156/2018	18-Nov-16	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/127	TUVISA	TUVISAren puntu desberdinetarako energia elektriko berriztagarriko horniketa	Ebazpena 161/2018	18-Nov-21	Baietsiak	
EB 2018/129	TUVISA	TUVISAren puntu desberdinetarako energia elektriko berriztagarriko horniketa	Ebazpena 161/2018	18-Nov-21	Baietsiak	
EB 2018/130	Azkoitiko Udala	Azkoitiko udal mugapean bidaiarien herri-garraio zerbitzua	Ebazpena 157/2018	18-Nov-16	Baietsiak	
EB 2018/133	Barakaldo-Sestaoko ESla	Barakaldo-Sestaoko ESla jariaकिनak administratzeko ekipoak	Ebazpena 162/2018	18-Nov-21	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/138	Barrualde-Galdakao ESla	Barrualde-Galdakao ESla hemodialisia egiteko beharreko diren produktu eta ekipoak eskuratzeko esparru-akordioa	Ebazpena 175/2018	18-Dec-12	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/143	Hezkuntza Saila	Hezkuntza sailaren ikastetxe publikoetan 1300 monitore interaktibo hornitzea, instalatzea eta konfiguratzea	Ebazpena 155/2018	18-Nov-15	Baietsiak	
EB 2018/147	Villabonako Udala	Villabonako argiteria publikoaren berme osokomantenua eta energia zerbitzuak	Ebazpena 179/2018	18-Dec-12	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta
EB 2018/150	Ilodioko Udala	Altzarrateko antzokiaren proiektuaren idazketa kontratatzea, ideien konkurtso bidez	Ebazpena 181/2018	18-Dec-18	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/153	Elgoibarko Udala	Elgoibarko udal lorategiak eta berdeguneak konserbatzeko eta mantentzeko zerbitzua	Ebazpena 186/2017	19-Dec-27	Neurri batean baietsiak	57.4 beteta

... /...

... /...

ERREKUR-TSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPE-NAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/159	Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda	Sestaoko Orixe Kalean 14 etxebizitza sozial eraikitze-ko proiektua idaztea eta zuzendaritza fakultatiboa	Ebazpena 008/2019	19-Jan-15	Baietsiak	
EB 2018/163	UPV/EHU	UPV/EHUren hainbat ikastegitarako laborategiko gas hornikuntzarako espar-ru-akordioa	Ebazpena 003/2019	19-Jan-9	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/168	Vitoria-Gasteizko Udala	Udalaren rokodromoetako jarduerak eta zerbitzua gauzatzea 2019ko urtarriletik uztaiera	Ebazpena 012/2019	19-Jan-17	Baietsiak	
EB 2018/169	Ormaiztegiko Udala	Energia zerbitzuak emateko hornikuntza kontratua, argiteria publikoko instalazioen mantenimendua eta berme osoa barne hartzen duena	Ebazpena 021/2019	19-Jan-31	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/171	Ormaiztegiko Udala	Energia zerbitzuak emateko hornikuntza kontratua, argiteria publikoko instalazioen mantenimendua eta berme osoa barne hartzen duena	Ebazpena 021/2019	19-Jan-31	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/182	Arabako Lautadako Kuadrilla	Aholkularitza teknikoa eta hirigintzan Arabako Lautadako Kuadrillari	Ebazpena 039/2019	19-Feb-19	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/186	Parlamento	Eusko Legebiltzarreko eraikuntza eta garajee-tako energia elektrikoaren horniketa	Ebazpena 033/2019	19-Feb-11	Baietsiak	
EB 2018/187	UPV/EHU	UPV/EHUko Ikastegiak eta bestelako lekuak garbitzeko zerbitzuak	Ebazpena 035/2019	19-Feb-12	Baietsiak	
EB 2018/189	ETS	Bideo-zainketa eta intru-sioaren kontrako sistemen mantentze lanak ETSko trenbide sareko instalazioetan	Ebazpena 006/2019	19-Jan-10	Baietsiak	

... /...

... /...

ERREKURTSOAREN ZENBAKIA	BOTERE ES-LEITZAILEA	KONTRATUAREN OBJEKTUA	EBAZPENAREN ZENBAKIA	DATA	ZENTZUA	SPKL-ren 57.4 artikulua
EB 2018/194	Parlamento	Eusko Legebiltzarreko eraikuntza eta garajee-tako energia elektrikoaren horniketa	Ebazpena 033/2019	19-Feb-11	Baietsiak	
EB 2018/195	Lasarte-Oriako Udala	Lasarte-Oriako herrian eta Lasarte-Oriako etxebizitza komunitarioetan etxez-etxe laguntzako zerbitzua	Ebazpena 034/2019	19-Feb-12	Neurri batean baietsiak	
EB 2018/198	UPV/EHU	Laborategiko altzarien hornidura eta instalazioa Leioako Campuseko Martina Casiano eta María Goyri eraikinetan	Ebazpena 040/2019	19-Feb-20	Baietsiak	
EB 2018/200	ITELAZPI	ITELAZPI-ren sarearen Mantenua Mugikortasunean egiteko aplikazio informatikoaren hornidura eta inplantazioa	Ebazpena 052/2019	19-Mar-8	Baietsiak	57.4 beteta